



GOBIERNO DE ESPAÑA

MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL



INSTITUTO NACIONAL DE TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO



MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA

# GOBERNU IREKIA

## Lehen Hezkuntza

IRAKURKETA ERRAZEAN



Financiado por la Unión Europea  
NextGenerationEU



Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia



Título: Gida didaktikoa Gobernu Irekia Lehen Hezkuntza. Irakurketa Erraza

Documento Accesible

Publicación del programa de publicaciones del  
Ministerio de Hacienda y Función Pública

Hecho por:

© Ministerio de Hacienda y Función Pública.  
2021

Códigos para encontrar el documento original del Gobierno

NIPO: 277-21-026-X (papel)  
NIPO: 277-21-027-5 (en línea, pdf.)





# Gobernu Irekiari buruzko Hezkuntza gida



Gobernu Irekiari buruzko Hezkuntza gida .....	4
Zergatik egin dugu gida hau? .....	5
Nork egin du gida hau? .....	6
Irakaslearen koadernoak .....	7
Gardentasuna .....	8
Ainararen txangoa.....	9
Parte-hartzea .....	14
Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte .....	15
Elkarlana .....	21
Ainarak eta lagunek trafikoan laguntzen dute .....	22
Ikaslearen koadernoak.....	28
Ainararen txangoa.....	29
Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte .....	33
Ainarak eta lagunek trafikoan laguntzen dute .....	37
Hiztegia .....	40

## Zergatik egin dugu gida hau?

Gida hau Lehen Hezkuntzako irakasleentzako da.  
Haurrei **Gobernu ireki** baten balioak  
zer diren azaltzen lagunduko dizue.  
Balio horiek dira: gardentasuna,  
parte-hartzea eta elkarlana gizartean.

Gobernu ireki batean herritarrek badakigu  
zer egiten duten politikariek,  
eta erabakiak hartzean parte har dezakegu.  
Horrela eraiki dezakegu gizarte irekiagoa,  
arduratsuagoa eta zorrotzagoa.

Gobernu irekia zer den azaltzeko  
Ainararen 3 istorio kontatuko dira gida honetan.  
Ainara 5. mailako ikaslea da.

## Nork egin du gida hau?

2 ikerlarik idatzi dute gida hau:

José Ignacio Criadok eta Vicente Pastorrek.



### **José Ignacio Criado**

Irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Berrikuntza Publikorako Gobernuko Laborategiko zuzendaria.

Twitterren izena du: @jicriado



### **Vicente Pastor**

Ikertzailea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Berrikuntza Publikorako Gobernuko Laborategian.

Twitterren izena du: @vipaspa

Irakurketa Errazera egokitzapena:  
Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza



## Irakaslearen koadernoia





## GARDENTASUNA

Gobernu ireki bat gardena da.  
Horrek esan nahi du hartzen dituen erabakiak argiak direla  
eta herritarrek modu errazean ezagutzen dituztela erabaki horiek.  
Informazio garden horri esker,  
aukera daukagu gure gobernuaren erabaki horietan  
parte hartzeko eta elkarlana egiteko.

## Ainararen txangoa

Ainarak 10 urte ditu.

Txantxangorria ikastetxeko ikaslea da.

Ainarari ikastea eta etxeko lanak egitea gustatzen zaio.

Ikaskideekin ondo moldatzen da.

Gabonetako oporren ondoren,

Ainara ikastetxean dagoela, gaizki sentitu da.

—Ez nago ondo, Kepa —esan dio irakasleari.

Kepak Ainararen aitari deitu dio telefonoz

eta azkar iritsi da ikastetxera.

Aitak Ainara jaso du eta medikuarengana joan dira.

Medikuak Ainarari esan dio sukar altua duela

eta beraz, etxean egon behar duela aste osoan zehar.

—Ezingo dut ikastetxeko kulturaren asteaz gozatu

—esan du Ainarak triste.

—Ez kezkatu, maitea, kontatuko dizute zer egin duten.

Ainara etxean sendatzen den bitartean,

ikasgelan ondo pasatzen dute

kultura asteko ekintzak antolatzen.

Ostiralean, Kepa irakasleak esan die denei  
astelehenean txangoa egingo dutela hiriburura.

Han bisita egingo dute Gobernu Jauregira,

Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrera

eta Espainiako Gobernuko Ordezkaritzara.

Txangora joateko ikasleek gurasoen baimena  
sinatuta eraman behar dute.

Astelehenean, Ainara ondo dago

eta aitak ikastetxera lagundu dio.

—Egun on, Ainara —esan du irakasleak—.

Pozten nau zu hobeto egoteak, gaur txangoa dugu eta!

—Zein txango? —galdetu du Ainarak harrিতuta.



—Gaur hiriburura txangoa egingo dugu.  
Ekarri duzu gurasoen baimena sinatuta?

—Baina Kepa, nik ez nekien ezer txangoaz!

—Sentitzen dut, Ainara. Uste nuen bazenekiela.  
Baina ezin zara etorri gurasoen baimenik gabe.

Mikel, Ainararen ikaskidea, elkarrizketa entzuten ari da eta ikaskideei kontatu die autobusera igotakoan. Berehala Ainararen lagun batzuk autobusetik jaitsi dira Keparekin hitz egiteko.

—Ainara gurekin ez badator, ez gara txangora joango  
—esan du Mikelek—. Ainara ere gurekin etortzea nahi dugu.  
Zergatik ez diozu Ainararen aitari deitzen baimena orain sinatzeko?

—Arrazoi duzu, Mikel —erantzun du irakasleak—. Ikastetxeak web-orrian garaiz argitaratu behar zuen txangoari buruzko informazio guztia. Ainararekin solidario zaretela ikusteak pozten nau.

Irakasleak Ainararen aitari deitu dio eta hortik gutxira ikastetxera etorri da eta baimena sinatu du. Ainara autobusera igo da eta denak poz-pozik doaz hiriburura.

Orduan irakaslea mikrofonotik hitz egiten hasi da:

—Gaur egin duzuen garrantzitsua da. Ainarari lagundu diozue egoera zail batean. Gainera, nik neuk azalduko diot ikastetxeko zuzendariari gaur egin duzuen eta konturatuko da garrantzitsua dela beti informazio guztia argitaratzea. Harro egon behar zarete zuen jarrerarekin, hemendik aurrera ez delako berriz gertatuko Ainarari gertatu zaiona.

Ainara eta ikastetxeko lagunei esker gardentasun neurriak jarriko ditu ikastetxeak. Txantxangorria ikastetxeari gardenago izaten lagundu diote, Gobernu irekiaren balioekin bat eginik.



## Zer ikasi dugu?

- Gobernu ireki batek betebeharra du ikasleei eta familiei eskaintzen dien jardueri buruzko informazioa emateko, Txantxangorria ikastetxeak erakusten duen bezala. Ezin badugu behar dugun informazioa aurkitu, ikastetxean edo beste edozein toki publikotan galdetu eta eska dezakegu.
- Gardentasuna oinarritzko balioa da ikastetxeak funtziona dezan.
- Familientzako informaziorako sistema berria Internet bidez gardentasunerako tresna onuragarria da. Informaziorako sistema zenbat eta berritzaileagoa izan, orduan eta gardenagoak izango dira ikastetxeak.

## Gardentasunari buruzko jarduerak

### 1. Gardentasunaren hizki zopa

Bilatu hizki zopan gardentasunarekin lotutako hitzak.

**egia - berria - zintzoa - argia - hurbila**

D	L	V	E	G	I	A	A	B
T	A	R	G	I	A	N	E	E
Z	I	N	T	Z	O	A	N	R
D	I	O	L	T	A	N	O	R
T	U	V	A	D	I	O	V	I
I	U	H	U	R	B	I	L	A

**Hizki zoparen erantzuna:**

**egia - berria - zintzoa - argia - hurbila**

D	L	V	E	G	I	A	A	B
T	A	R	G	I	A	N	E	E
Z	I	N	T	Z	O	A	N	R
D	I	O	L	T	A	N	O	R
T	U	V	A	D	I	O	V	I
I	U	H	U	R	B	I	L	A

## 2. Jolasa: Erantzukizunaren ilara

### Helburua:

Uldtaraztea gure ekintza guztiek beste pertsoneri eragiten dietela. Hau da, hartzen ditugun erabakiek besteei eragiten dietela.



### Jarduera garatzeko:

Haurrak ilaran jarriko dira eta aurreko laguna gerritik helduko dute. Irakasleak mugimendu batzuk egingo ditu eta hurrek mugimenduak antzeratuko dituzte aurreko lagunarengandik banandu edo askatu gabe.

Mugimenduen adibideak:

- Aurrera, atzera edo alde batera ibiltzea.
- Irakasleak txalo egiten duenean edo musika gelditzen denean norabidea aldatzea.
- Jauziak egitea: bi aurrera, bat atzera...

## 3. Solasaldia

Denak lurrean eseriko gara biribilean eta hitz egingo dugu:

- Zaila izan da mugimendu hau edo bestea egitea? Zergatik?
- Zer da zailagoa: ariketak bakarka egitea ala taldeka? Zergatik?
- Nola eragin dizute aurrean edo atzean zenuten pertsonaren mugimenduek?
- Pentsa dezagun zer eragin izan dezakeen argia ez den edo ondo bidaltzen ez den informazioak.

## PARTE-HARTZEA

Gobernu irekia parte-hartzailea da.  
Horrek esan nahi du ekintza politikoak  
sortu eta kudeatzen dituela herritarren parte-hartzearekin.

Parte-hartzea pertsona guztiek dugun eskubidea da,  
eragiten diguten erabaki publikoen parte izateko eskubidea.  
Guztien ongirako dugun betebeharra ere bada.

Parte-hartzeak politikariei erronka batzuk ekartzen dizkie.  
Erronka horiek aukerak izan daitezke  
Gobernu ireki batek funtziona dezan.

## Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte

Ainara ikastetxera doa autobusez.  
Bidean leihotik begiratzen ditu  
bizi den hiriko parke eta lorategiak.

Handiak dira, zuhaitz asko eta atseden hartzeko gune zabalak dituzte.  
Baina parke bakarrak du haurrek jolasteko lekua.

Ikastetxera iritsitakoan, Ainarak  
Aitor eta Iruñe ikaskideekin hitz egiten du:

—Atzo txakurrarekin Gernika parkean egon nintzen jolasean  
—Aitorrek kontatzen die—. Baina jolasteko lekuak itxita zeuden,  
konpontzen ari direlako.

—Nire auzoko parkean kulunka gehienak hondatuta daude  
eta ezin dut jolastu —esan du Iruñek.


Orduan, Ainarak dio:

—Ideia bat daukat! Atzo ikastetxeko oharren taulan ikusi nuen  
Udalak Haurren Kontseilu bat egin nahi duela.

—Zer da hori? —galdetu diote Iruñek eta Aitorrek.

—Amak azaldu dit Haurren Kontseilua haurren talde bat dela  
eta Udalari eskatzen diola gure arazoak konpontzeko.

Hirurak ados jarri dira Haurren Kontseilura joateko  
eta hiriko parkeez uste dutena azaltzeko.





Ainarak baimena eskatu dio irakasleari  
ideia hau ikaskideei kontatzeko.  
Denak ados daude parkeetako jolasteko lekuak  
hobetu behar direla.


—Nork joan nahi du Haur Kontseilura?  
—galdetu du irakasleak—. Aurkezteko oinarrietan esaten du  
gelako bi ordezkari aurkez zaitezketela.

Ainarak besoa altxa du segituan.

—Nik ere nahi dut —esan du Aitorrek.

—Eta nik! —dio Mikelek.

—Ba nik ere bai! —esan du Irunek.



Orduan irakasleak antolatu beharko du,  
Kontseiluan parte-hartu nahi duten lau haur daudelako  
eta bi bakarrik joan daitezkeelako.  
Irakasleak bozketa egitea proposatzen die denei,  
horrela ordezkaturako dituen bi lagun aukeratzeko.

Gelakide guztiek ideia ona dela uste dute,  
txalo ere egin dute.

Izangaiak dira: Ainara, Aitor, Mikel eta Irune.  
Ikasle bakoitzak hauetako bi bozka ditzake.  
Horretarako, bakoitzak paper batean bi izen idatzi ditu  
eta papera kartoizko kutxa baten barruan sartu du.

Irakasleak paper bakoitzean idatzitako izenak kontatzen ditu.  
Ainara eta Aitor dira boto gehien dituztenak.  
Beraz, Ainara eta Aitor izango dira beste haurren ordezkari!

Ainara eta Aitor segituan lanean hasi dira:  
denen artean esaten dituzten ideiak idazten doaz.  
Hiriko 22 parkeetako 10 hobetu behar direla ondorioztatu dute.  
Parke batzuetan eserlekuak konpondu behar dira,  
beste batzuetan jolas lekuak handitu  
eta beste batzuetan jolasteko leku berriak sortu behar dira.

Haurren Kontseiluko bilera egunean,  
Ainarak eta Aitorrek alkateari eta Udaleko parkeetako arduradunari  
hobetzeko proposamen guztiak azaldu dizkiete.

—Mila esker, Ainara eta Aitor —esan die alkateak—.  
Adi-adi entzun dizuegu.  
Orain badakigu zuen adineko haurren iritzia.  
Ahal dugun guztia egingo dugu zuen beharrak betetzeko,  
baina baita ere espero dugu denok parke eta lorategiak zaintzea.



Ainara eta Aitor poz-pezik daude.  
Ikaskide guztien parte-hartzeari esker  
Udalak parkeetako jolasteko lekuak hobetuko dituzte!

Urtebete geroago, parke gehienek  
haurrentzako jolasteko leku berria dute.  
Ainararen parkeak hobetzeko ideia egia bihurtu da  
ikasgelako haur guztien parte-hartzeari esker.

### **Zer ikasi dugu?**

- Ona da gure ingurunea zaintzea.  
Parkeak, kaleak, berdeguneak denonak dira.  
Horregatik denon artean lagundu behar dugu  
horiek mantendu eta hobetzeko.
- Politikariei informazioa eman behar diegu  
gauza publikoak hautsita badaude  
edo hobekuntzak behar badituzte.
- Erabakietan parte hartzeko modu ezberdinak daude.  
Ainarak eta Aitorrek hobetzeko proposamenak  
Haurren Kontseiluan adierazi dituzte.  
Garrantzitsua da kasu bakoitzean  
parte-hartzeko modurik onena bilatzea.
- Parte-hartzea denona da.  
Ainarak eta Aitorrek ikaskideak ordezkatzan dituzte.  
Haur bakoitzaren iritzia jakinarazten dituzte.
- Ahal dugun guztietan parte-hartu behar dugu.  
Politikariek gure iritzi eta beharrak entzun behar dituzte.

## Parte-hartzeari buruzko jarduerak

### 1. Parte-hartzeari buruzko esaldiak

Osatu esaldiak hurrengo hitz hauekin.

Lehenengo, ikaskide batekin egin eta gero zuzendu irakaslearekin.

#### Hitzak


parte hartu – ideiak – proposamenak – hobekuntzak - ongia - premiak - bozkatu

#### Esaldiak

Ikasle guztiek \_\_\_\_\_ dezakete  
ikastetxea eta hiria hobetzeko.

Ikasleek \_\_\_\_\_ eta proposamenak  
ematen dituzte bizitza hobetzeko.

Talde bateko proposamenek  
guztien \_\_\_\_\_ bilatu behar dute,  
hau da, talde osoaren \_\_\_\_\_.



Zure \_\_\_\_\_ batzuk izan daitezke,  
zure lagunak eta zure familiarenak beste batzuk.  
Guztien \_\_\_\_\_ bateratzea da onena.

\_\_\_\_\_ eman nahi dituzu zure ikastetxean  
edo zure auzoan hobekuntzak egiteko?

Ideiak Udaletxera eraman ahal izateko  
ordezkariak \_\_\_\_\_ behar dira.

## **2. Nik behar ditudan gauzak, denek behar dituzten gauzak dira?**

Taldean lan egin.

Pertsona talde baten premien garrantziaz pentsatu.

Baita herritar guztiek elkarrekin dituzten premien garrantziaz ere.

Lehenengo, ikasle bakoitzak bi premia esango ditu.

Adibidez:

1. Garraiobide publikoak hobetu.
2. Kaleak oinezkoentzako gunee bihurtu, bertan jolastu ahal izateko.

Ondoren, premia horiei buruz hitz egin

taldeko ikasle guztien artean

eta irakasleak idatziko ditu horman itsatsitako kartulina batean.

Bigarren, irakasleak galdetuko du ikasleen gurasoek

kartulina idatzitako premiak dituzten

edo beste batzuk ere izango dituzten.

Irakasleak beste kartulina batean gurasoen premiak idatziko ditu.

Bukatzeko, eztabaidatu talde baten eta herritar guztien

premia ezberdinei buruz:

- Zer premiek eragiten diete pertsona gehienei?
- Zer premia izaten dituzte normalean babesgabeko pertsonak?
- Zerrendako premien artean, zein dira oinarrizkoak herritarrentzat?
- Zein premia dira lehenak zure auzoko bizi kalitatea hobetzeko?

## **3. Parte-hartzea ulertzeko antzerkia**

**Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte**

istorioaren antzezlan bat egin.

Inprobisatu elkarrizketa batzuk.

## **4. Parte-hartzearen horma-irudia**

Zuen ikastetxearen premiak azaltzen dituen horma-irudi bat egin.

Ikastetxeko arduradunei jakinarazi premia horiek

eta bilera bat antolatu zuen proposamenak entzun ditzaten.

## ELKARLANA

Gobernu irekia elkarlanean egiten da.  
Horrek esan nahi du politikariak aurkitu,  
hitz egin eta elkarrekin lan egiten dutela  
herritarrentzako zerbitzuak sortu eta hobetzeko.

Elkarlanean aritzeko, politikariek  
beste politikari batzuekin lan egiten dute,  
baina baita herritar, enpresa, elkarte edo unibertsitateekin.

Elkarlana izan daiteke:

- **Tokikoa:** herri edo hiriei eragiten badie.
- **Eskualdekoa:** probintziari eragiten badio.
- **Estatukoa:** estatu osoari eragiten badio.



## Ainarak eta lagunek trafikoan laguntzen dute

Txantxangorria ikastetxeko ikasleak ikasgelara iritsi dira.  
Batzuk ikastetxeko autobusean iristen dira,  
beste batzuk autobus publikoan,  
besteak senideren batekin autoan eta beste asko oinez.

—Egun on, Ainara —agurtu du Aitorrek.

—Egun on, Aitor. Zer moduz?  
—erantzun dio lasterka iristen den bitartean.



—Oso ondo. Eta zu, nora zoaz korrika?

—Errepide hau gurutzatzea arriskutsua da:  
gurasoen auto pila daude,  
ez dago oinezkoentzako pasabiderik,  
ezta trafikoa antolatuko duen polizia ere!

Ainara eta Aitor ikastetxeko zuzendariarekin  
hitz egitera doaz.

Azaldu diote auto asko eta toki gutxi dagoela aparkatzeko,  
ez dagoela autobusentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzako  
aparkaleku berezirik eta gainera,  
ez dagoela pasabiderik ikastetxera oinez iristen direnentzat.

—Nola konpon dezakegu egoera hau? —galdetu du Ainarak.

—Hurrengo Eskola Kontseiluko bileran egoera azalduko dut  
—erantzun du zuzendariak—. Gurasoekin eta ikastetxeko  
autobusaren enpresakoekin hitz egingo dut.  
Nor gehiagoarekin hitz egin dezakegu?

—Udaleko trafikoko zinegotziarekin  
eta Udaltzaingoarekin —esan du Ainarak.

—Eta guk ere elkarlana egin dezakegu  
—esan du Aitorrek pozik—.  
Amak lan egiten duen enpresan  
antzeko lana egiten dute:  
arazo bera duten pertsona talde bat antolatzen du  
hitz egiteko eta elkarrekin konponbidea bilatzeko.  
Amak beti ideien laborategi bati buruz hitz egiten du...



—Oso ondo Ainara eta Aitor! —erantzun die zuzendariak—. Zure amarekin hitz egingo dut eta galdetuko diot lan hau koordinatu nahi duen. Ikastetxeko mugimendua hobetzeko ideien laborategi bat sortuko dugu. Zer iruditzen zaizue?

—Oso ideia ona da! —esan du Ainarak.

Egun batzuetan zehar, zuzendariak eta Aitorren amak elkarrekin lan egin dute: “Txantxangorria ideien laborategian” elkarlana egitera deitu dituzte pertsona eta erakunde guztiak.

Ikastetxeko sarrera eta irteerako mugimendu arazoak zehaztu dituzte eta konponbideak proposatu dituzte.



Konponbide horiek dira:

- Udalak oinezkoentzako pasabideak jarriko ditu kalean. Autoak astiroago joango dira eta pertsonak gurutzatu ahal izango dute.
- Trafikoko poliziak egunero ordu erdi egongo dira ikastetxeko sarreran eta irteeran trafikoa antolatzen.
- Ikastetxeko autobus enpresak eta Udalak ikastetxe ondoan sortuko dituzte autobusak aparkatzeko gunea eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko gunea.
- Ikastetxeak bide-hezkuntzari buruzko ikastaroak emango dizkie ikasle guztiei.
- Ikasleen gurasoen elkarteak bizikletaren erabilera bultzatuko du. Horrela auto gutxiago egongo dira. Eta ikastetxean bizikletak aparkatzeko gunea jarriko dute.

Elkarlanari esker, azkar hobetu da dena. Autoak astiroago doaz, autoak eta autobusak aparkatzeko gunek daude, eta denek ondo ezagutzen dituzte oinezkoentzako pasabideak. Gainera, familia asko ikastetxera bizikletan joaten hasi dira.



Emitza on hau ikusita, ikastetxeak erabaki bat hartu du: hemendik aurrera ikastetxeko arazoetan elkarlana egingo dute barne dauden pertsona eta zerbitzu guztiekin.

### **Zer ikasi dugu?**

- Arazo batzuk ezin ditugu bakarrik konpondu. Pertsona gehiagoren laguntza eta elkarlana behar dugu. Elkarlanak helburuak lortzen laguntzen digu.
- Ez dago arazoentzako konponbide bakar bat. Arazoak ikusi, adierazi eta konpontzeko modu asko daude.
- Elkarrekin lan egiteak pertsonen parte-hartzea eta ados jartzea errazten du, baita arazoek ikuspegi zabalagoa ere.
- Besteekin elkarlanean aritu gaituzke bizitzako arlo guztietan: ikastetxean, gobernuan eta administrazio publikoetan, etxean familiarekin, lagunekin... Hobetzeko partekatzea da helburua.

## Elkarlanari buruzko jarduerak

### 1. Ikasgelan jolasak: Denok gara beharrezkoak

Helburuak:

- Jolasean modu aktiboan parte-hartzea justizia eta zuzentasunaren gizarte balioei buruz pentsatzeko.
- Ezagutzea eta aitortzea elkarbizitza osasuntsu baterako gizarteko funtzio ezberdinen eta pertsonen arteko elkar-eragitearen garrantzia.
- Funtzio bakoitzaren bitartez eskaini dezakeguna aurkitzea.

#### Jarduera garatzeko:

Irakasleak ikasleak antolatuko ditu biribilean esertzeko.

Poltsa edo kutxa bat pasako zaie paperekin

eta bakoitzak paper bat aukeratuko du.

Paper horietan lanbide bat dago idatzita.

Ikasle bakoitzak zein lanbide duen esango du.

Irakasleak elkarbizitzari eragiten dion arazo bat azalduko du.

Adibidez:

- Parke publiko zikinak.
- Etxetik kanpo bakarrik utzitako txakur eta katuak.
- Hirian falta diren bidegorriak.
- Udal liburutegian sartzeko arazoak (ez daude gurpildun aulkientzako arrapalak, liburutegiko atalak ez daude ondo adierazita...).

Ikasle bakoitzak bere lanbidearen arabera konponbide bat edo bi pentsatuko ditu eta partekatu egiten dituzte.

Irakasleak solasaldia moderatuko du eta azpimarratuko du azalduetako ideia eta esperientzia bakoitzaren garrantzia.

Arazoa errazago konpontzen da bakoitzak gure tokitik elkarlana egiten badugu.



## 2. Enigmen jolasa



Ikasleek zatiak falta diren istorio bateko arazo bat konpondu behar dute.

Ikasleak detektibe izatera jolasten dira, ikerketa egingo dute. Ikasleek galderak egin eta pistak eskatuko dizkiote irakasleari. Baina irakasleak bakarrik baietz edo ezetz erantzun dezake.

Adibidez:

“Gizon bat taberna batean sartu da.

Edalontzi bat ur eskatu du.

Zerbitzaria barra atzean ezkutatu da.

Bat-batean mamuz mozorrotuta agertu da.

Bezeroak eskerrak eman dizkio eta tabernatik atera da.”

Zer gertatu ote da istorio honetan?

Izan daiteke gizonak zotina izatea

eta zerbitzariak ezustekoa eman dio zotina kentzeko.

## 3. Txangora goaz

4 edo 5 ikasleko taldeak egingo dira.

Talde bakoitzak ikasturte amaierako txangoan joateko toki aukeratu behar du.

Taldeko kide bakoitzak toki bat esango du

eta taldean eztabaidatu ondoren, toki bat aukeratuko dute.

Ondoren, bidaia antolatu behar dute:

- Noiz egingo dute bidaia.
- Zein garraiotan joango dira.
- Zer ordutegitan bidaiatuko dute.
- Gidari edo laguntzaile bat behar ote dute.
- Bidaian egingo dituzten jarduerak, txangoak...
- Zenbat kostatuko du bidaiak.
- Nola ordaindu bidaia.



Azkenik, talde bakoitzeko bozeramaileak taldearen erabakia azalduko du. Ondoren talde bakoitzaren proposamena eztabaidatu eta partekatzen dute talde guztien azterketa eta ekarpenekin. Horrela, denek elkarlana egiten dute.

## **Laburpena**

Hezkuntza gida honetan Lehen Hezkuntzako ikasleei Gobernu irekia zer den irakasten zaie.

Hiru istorio erabili ditugu Gobernu irekiaren hiru oinarriak azaltzeko: gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana. Jardueren bitartez kontzeptu hauek modu praktikoan azaldu, landu eta ulertu dira.

Gobernu irekia gizartea gobernatzeko modu berri bat da, baita gobernuak eta administrazio publikoak ulertzeko modu berri bat ere. Honen helburua da herritarren ezaguerak erabiltzea gure gizartea hobetzean barne egoteko. Bidaia honek gizarte guztiaren parte-hartzea behar du, baita haurrena ere.

## Ikaslearen koaderno



## Ainararen txangoa

Ainarak 10 urte ditu.

Txantxangorria ikastetxeko ikaslea da.

Ainarari ikastea eta etxeko lanak egitea gustatzen zaio.

Ikaskideekin ondo moldatzen da.

Gabonetako oporren ondoren,

Ainara ikastetxean zegoela, gaizki sentitu da.

—Ez nago ondo, Kepa —esan dio irakasleari.

Kepak Ainararen aitari deitu dio telefonoz

eta azkar iritsi da ikastetxera.

Aitak Ainara jaso du eta medikuarengana joan dira.

Medikuak Ainarari esan dio sukar altua duela

eta beraz, etxean egon behar duela aste osoan zehar.



—Ezingo dut ikastetxeko kulturaren asteaz gozatu

—esan du Ainarak triste.

—Ez kezkatu, maitea, kontatuko dizute zer egin duten.

Ainara etxean sendatzen den bitartean,

ikasgelan ondo pasatzen dute

kultura asteko ekintzak antolatzen.

Ostiralean, Kepa irakasleak esan die denei  
astehenean txangoa egingo dutela hiriburura.

Han bisita egingo dute Gobernu Jauregira,

Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrera

eta Espainiako Gobernuko Ordezkaritzara.

Txangora joateko ikasleek gurasoen baimena

sinatuta eraman behar dute.

Astehenean, Ainara ondo dago eta aitak ikastetxera lagundu dio.

—Egun on, Ainara —esan du irakasleak—.

Pozten nau zu hobeto egoteak, gaur txangoa dugu eta!

—Zein txango? —galdetu du Ainarak harrিতuta.

—Gaur hiriburura txangoa egingo dugu.  
Ekarri duzu gurasoen baimena sinatuta?

—Baina Kepa, nik ez nekien ezer txangoaz!

—Sentitzen dut, Ainara. Uste nuen bazenekiela.  
Baina ezin zara etorri gurasoen baimenik gabe.

Mikel, Ainararen ikaskidea, elkarrizketa entzuten ari da eta ikaskideei kontatu die autobusera igotakoan. Berehala Ainararen lagun batzuk autobusetik jaitsi dira Keparekin hitz egiteko.

—Ainara gurekin ez badator, ez gara txangora joango  
—esan du Mikelek—. Ainara ere gurekin etortzea nahi dugu.  
Zergatik ez diozu Ainararen aitari deitzen baimena orain sinatzeko?

—Arrazoi duzu, Mikel —erantzun du irakasleak—. Ikastetxeak web-orrian garaiz argitaratu behar zuen txangoari buruzko informazio guztia. Ainararekin solidario zaretela ikusteak pozten nau.

Irakasleak Ainararen aitari deitu dio eta hortik gutxira ikastetxera etorri da eta baimena sinatu du. Ainara autobusera igo da eta denak poz-pozik doaz hiriburura.

Orduan irakaslea mikrofonotik hitz egiten hasi da:

—Gaur egin duzuen garrantzitsua da. Ainarari lagundu diozue egoera zail batean. Gainera, nik neuk azalduko diot ikastetxeko zuzendariari gaur egin duzuen eta konturatuko da garrantzitsua dela beti informazio guztia argitaratzea. Harro egon behar zarete zuen jarrerarekin, hemendik aurrera ez delako berriz gertatuko Ainarari gertatu zaiona.

Ainara eta ikastetxeko lagunei esker gardentasun neurriak jarriko ditu ikastetxeak. Txantxangorria ikastetxeari gardenago izaten lagundu diote, Gobernu irekiaren balioekin bat eginik.



## Zer ikasi dugu?

- Gobernu ireki batek betebeharra du ikasleei eta familiei eskaintzen dien jardueri buruzko informazioa emateko, Txantxangorria ikastetxeak erakusten duen bezala. Ezin badugu behar dugun informazioa aurkitu, ikastetxean edo beste edozein toki publikotan galdetu eta eska dezakegu.
- Gardentasuna oinarritzko balioa da ikastetxeak funtziona dezan.
- Familientzako informaziorako sistema berria Internet bidez gardentasunerako tresna onuragarria da. Informaziorako sistema zenbat eta berritzaileagoa izan, orduan eta gardenagoak izango dira ikastetxeak.



## Gardentasunari buruzko jarduerak


### 1. Gardentasunaren hizki zopa

Bilatu hizki zopan gardentasunarekin lotutako hitzak.

egia - berria - zintzoa - argia - hurbila

D	L	V	E	G	I	A	A	B
T	A	R	G	I	A	N	E	E
Z	I	N	T	Z	O	A	N	R
D	I	O	L	T	A	N	O	R
T	U	V	A	D	I	O	V	I
I	U	H	U	R	B	I	L	A

## Ainarak eta lagunek parkeak hobetu dituzte



Ainara ikastetxera doa autobusez.  
Bidean leihotik begiratzen ditu  
bizi den hiriko parke eta lorategiak.

Handiak dira, zuhaitz asko eta atseden hartzeko  
gune zabalak dituzte.  
Baina parke bakarrak du haurrek jolasteko lekua.

Ikastetxera iritsitakoan, Ainarak  
Aitor eta Irunek ikaskideekin hitz egiten du:

—Atzo txakurrarekin Gernika parkean egon nintzen jolasean  
—Aitorrek kontatzen die—. Baina jolasteko lekuak itxita zeuden,  
konpontzen ari direlako.

—Nire auzoko parkean kulunka gehienak hondatuta daude  
eta ezin dut jolastu —esan du Irunek.

Orduan, Ainarak dio:

—Ideia bat daukat! Atzo ikastetxeko oharren taulan ikusi nuen  
Udalak Haurren Kontseilu bat egin nahi duela.

—Zer da hori? —galdetu diote Irunek eta Aitorrek.

—Amak azaldu dit Haurren Kontseilua haurren talde bat dela  
eta Udalari eskatzen diola gure arazoak konpontzeko.

Hirurak ados jarri dira Haurren Kontseilura joateko  
eta hiriko parkeez uste dutena azaltzeko.

Ainarak baimena eskatu dio irakasleari  
ideia hau ikaskideei kontatzeko.  
Denak ados daude parkeetako jolasteko lekuak  
hobetu behar direla.

—Nork joan nahi du Haur Kontseilura?  
—galdetu du irakasleak—. Aurkezteko oinarrietan esaten du  
gelako bi ordezkari aurkez zaitezketela.

Ainarak besoa altxa du segituan.

—Nik ere nahi dut —esan du Aitorrek.


—Eta nik! —dio Mikelek.

—Ba nik ere bai! —esan du Irunek.

Orduan irakasleak antolatu beharko du,  
Kontseiluan parte-hartu nahi duten lau haur daudelako  
eta bi bakarrik joan daitezkeelako.  
Irakasleak bozketa egitea proposatzen die denei,  
horrela ordezkatzeko dituen bi lagun aukeratzeko.

Gelakide guztiek ideia ona dela uste dute,  
txalo ere egin dute.

Izangaiak dira: Ainara, Aitor, Mikel eta Irune.  
Ikasle bakoitzak hauetako bi bozka ditzake.  
Horretarako, bakoitzak paper batean bi izen idatzi ditu  
eta papera kartoizko kutxa baten barruan sartu du.



Irakasleak paper bakoitzean idatzitako izenak kontatzen ditu.  
Ainara eta Aitor dira boto gehien dituztenak.  
Beraz, Ainara eta Aitor izango dira beste haurren ordezkari!

Ainara eta Aitor segituan lanean hasi dira:  
denen artean esaten dituzten ideiak idazten doaz.  
Hiriko 22 parkeetako 10 hobetu behar direla ondorioztatu dute.  
Parke batzuetan eserlekuak konpondu behar dira,  
beste batzuetan jolas lekuak handitu  
eta beste batzuetan jolasteko leku berriak sortu behar dira.

Haurren Kontseiluko bilera egunean,  
Ainarak eta Aitorrek alkateari eta Udaleko parkeetako arduradunari  
hobetzeko proposamen guztiak azaldu dizkiete.

—Mila esker, Ainara eta Aitor —esan die alkateak—.  
Adi-adi entzun dizuegu.  
Orain badakigu zuen adineko haurren iritzia.  
Ahal dugun guztia egingo dugu zuen beharrak betetzeko,  
baina baita ere espero dugu denok parke eta lorategiak zaintzea.

Ainara eta Aitor poz-pezik daude.  
Ikaskide guztien parte-hartzeari esker  
Udalak parkeetako jolasteko lekuak hobetuko dituzte!

Urtebete geroago, parke gehienek  
haurrentzako jolasteko leku berria dute.  
Ainararen parkeak hobetzeko ideia egia bihurtu da  
ikasgelako haur guztien parte-hartzeari esker.



### Zer ikasi dugu?

- Ona da gure ingurunea zaintzea.  
Parkeak, kaleak, berdeguneak denonak dira.  
Horregatik denon artean lagundu behar dugu  
horiek mantendu eta hobetzeko.
- Politikariei informazioa eman behar diegu  
gauza publikoak hautsita badaude  
edo hobekuntzak behar badituzte.
- Erabakietan parte hartzeko modu ezberdinak daude.  
Ainarak eta Aitorrek hobetzeko proposamenak  
Haurren Kontseiluan adierazi dituzte.  
Garrantzitsua da kasu bakoitzean  
parte-hartzeko modurik onena bilatzea.
- Parte-hartzea denona da.  
Ainarak eta Aitorrek ikaskideak ordezkatzan dituzte.  
Haur bakoitzaren iritzia jakinarazten dituzte.
- Ahal dugun guztietan parte-hartu behar dugu.  
Politikariek gure iritzi eta beharrak entzun behar dituzte.

## Parte-hartzeari buruzko jarduerak

### 1. Parte-hartzeari buruzko esaldiak

Osatu esaldiak hurrengo hitz hauekin.

Lehenengo, ikaskide batekin egin eta gero zuzendu irakaslearekin.

#### Hitzak

parte hartu – ideiak – proposamenak – hobekuntzak - ongia - premiak - bozkatu

#### Esaldiak

Ikasle guztiek \_\_\_\_\_ dezakete  
ikastetxea eta hiria hobetzeko.

Ikasleek \_\_\_\_\_ eta proposamenak  
ematen dituzte bizitza hobetzeko.

Talde bateko proposamenek  
guztien \_\_\_\_\_ bilatu behar dute,  
hau da, talde osoaren \_\_\_\_\_.

Zure \_\_\_\_\_ batzuk izan daitezke,  
zure lagunak eta zure familiarenak beste batzuk.  
Guztien \_\_\_\_\_ bateratzea da onena.

\_\_\_\_\_ eman nahi dituzu zure ikastetxean  
edo zure auzoan hobekuntzak egiteko?

Ideiak Udaletxera eraman ahal izateko  
ordezkariak \_\_\_\_\_ behar dira.

## Ainarak eta lagunek trafikoan laguntzen dute

Txantxangorria ikastetxeko ikasleak ikasgelara iritsi dira.  
Batzuk ikastetxeko autobusean iristen dira,  
beste batzuk autobus publikoan,  
besteak senideren batekin autoan eta beste asko oinez.

—Egun on, Ainarak —agurtu du Aitorrek.

—Egun on, Aitor. Zer moduz?  
—erantzun dio lasterka iristen den bitartean.

—Oso ondo. Eta zu, nora zoaz korrika?

—Errepide hau gurutzatzea arriskutsua da:  
gurasoen auto pila daude, ez dago oinezkoentzako pasabiderik,  
ezta trafikoa antolatuko duen polizia ere!

Ainarak eta Aitor ikastetxeko zuzendariarekin hitz egitera doaz.  
Azaldu diote auto asko eta toki gutxi dagoela aparkatzeko,  
ez dagoela autobusentzako edo desgaitasuna duten pertsonentzako  
aparkaleku berezirik eta gainera,  
ez dagoela pasabiderik ikastetxera oinez iristen direnentzat.



—Nola konpon dezakegu egoera hau?  
—galdetu du Ainarak.

—Hurrengo Eskola Kontseiluko bileran egoera  
azalduko dut —erantzun du zuzendariak—.  
Gurasoekin eta ikastetxeko  
autobusaren enpresakoekin hitz egingo dut.  
Nor gehiagoarekin hitz egin dezakegu?

—Udaleko trafikoko zinegotziarekin eta Udaltzaingoarekin  
—esan du Ainarak.

—Eta guk ere elkarlana egin dezakegu —esan du Aitorrek pozik—.  
Amak lan egiten duen enpresan antzeko lana egiten dute:  
arazo bera duten pertsona talde bat antolatzen du  
hitz egiteko eta elkarrekin konponbidea bilatzeko.  
Amak beti ideien laborategi bati buruz hitz egiten du...

—Oso ondo Ainara eta Aitor! —erantzun die zuzendariak—. Zure amarekin hitz egingo dut eta galdetuko diot lan hau koordinatu nahi duen. Ikastetxeko mugimendua hobetzeko ideien laborategi bat sortuko dugu. Zer iruditzen zaizue?

—Oso ideia ona da! —esan du Ainarak. Egun batzuetan zehar, zuzendariak eta Aitorren amak elkarrekin lan egin dute: “Txantxangorria ideien laborategian” elkarlana egitera deitu dituzte pertsona eta erakunde guztiak.

Ikastetxeko sarrera eta irteerako mugimendu arazoak zehaztu dituzte eta konponbideak proposatu dituzte.



Konponbide horiek dira:

- Udalak oinezkoentzako pasabideak jarriko ditu kalean. Autoak astiroago joango dira eta pertsonak gurutzatu ahal izango dute.
- Trafikoko poliziak egunero ordu erdi egongo dira ikastetxeko sarreran eta irteeran trafikoa antolatzen.
- Ikastetxeko autobus enpresak eta Udalak ikastetxe ondoan sortuko dituzte autobusak aparkatzeko gunea eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko gunea.
- Ikastetxeak bide-hezkuntzari buruzko ikastaroak emango dizkie ikasle guztiei.
- Ikasleen gurasoen elkarteak bizikletaren erabilera bultzatuko du. Horrela auto gutxiago egongo dira. Eta ikastetxean bizikletak aparkatzeko gunea jarriko dute.

Elkarlanari esker, azkar hobetu da dena.

Autoak astiroago doaz, autoak eta autobusak aparkatzeko guneak daude, eta denek ondo ezagutzen dituzte oinezkoentzako pasabideak.

Gainera, familia asko ikastetxera bizikletan joaten hasi dira.



Emaitza on hau ikusita, ikastetxeak erabaki bat hartu du: hemendik aurrera ikastetxeko arazoetan elkarlana egingo dute barne dauden pertsona eta zerbitzu guztiekin.

### **Zer ikasi dugu?**

- Arazo batzuk ezin ditugu bakarrik konpondu. Pertsona gehiagoren laguntza eta elkarlana behar dugu. Elkarlanak helburuak lortzen laguntzen digu.
- Ez dago arazoentzako konponbide bakar bat. Arazoak ikusi, adierazi eta konpontzeko modu asko daude.
- Elkarrekin lan egiteak pertsonen parte-hartzea eta ados jartzea errazten du, baita arazoen ikuspegi zabalagoa ere.
- Besteekin elkarlanean aritu gaitzke bizitzako arlo guztietan: ikastetxean, gobernuan eta administrazio publikoetan, etxean familiarekin, lagunekin... Hobetzeko partekatzea da helburua.





## Hiztegia

- **Demokrazia:** gobernu-modu bat da. Erabakitzeke boterea herritarrek dute. Herritarrek presidentea bozkatzeko dute hauteskundeetan. Lehendakariak gobernuan ordezkatzeko dute.
- **Elkarlana:** hainbat pertsonak elkarrekin lan egiten dute zerbait lortzeko. Elkarri laguntzen diote guztien helburu komuna lortzeko.
- **Erantzukizuna:** zerbait egiteko konpromisoa hartzen duzunean.
- **Gardentasuna:** zerbait besteei den bezala erakusten denean. Argi eta zintzo erakusten da. Informazio irekia ematen zaie guztiei. Ez dira gauzak ezkutatzen.
- **Ordezkarria:** talde batek aukeratutako pertsona bat da, haien lekuan toki batera joan eta eskatzen diotena esan dezan. Adibidez, Gobernuko presidentea herritarren ordezkaria da Gobernuan. Edo, adibidez, gelako ordezkaria ikasleen ordezkaria da irakaslearen aurrean.
- **Parte-hartzea:** zure iritzia ematen duzunean eta talde baten edo gizartearen ekintzen parte zarenean. Adibidez, ikasle batek gelan parte hartzen du irakasleari galdetuz.

“Europar Batasuna - Next Generation EU-k finantzatu du. Hala ere, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egilearenak edo egileenak baino ez dira eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak. Ez dira Europar Batasuna edo Europako Batzordea horien erantzuletzat hartuko”.

«Financiado por la Unión Europea - NextGenerationEU. Sin embargo, los puntos de vista y las opiniones expresadas son únicamente los del autor o autores y no reflejan necesariamente los de la Unión Europea o la Comisión Europea. Ni la Unión Europea ni la Comisión Europea pueden ser consideradas responsables de las mismas».



**Financiado por  
la Unión Europea**  
NextGenerationEU

**R** Berreskuratze, Eraldaketa  
eta Erresilientzia Plana





